

ERAKUNDEAREN DATUAK (eskatzen diren 5 eremuak bete mesedez)

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaltzeko daitezela.

1. Erakundearen izena:	ALOKABIDE
2. Sektorea:	☐ Hezkuntza ☐ Industria ☐ Osasuna ☐ Zerbitzuak ☐ <u>Administrazio publikoa</u> ☐ Gizarte ekintza
3. Langile kopurua:	98 emakume (% 75,38) eta 32 gizon (% 24,62) = 130 pertsona (uztailaren 1ean)
4. Webgunea:	https://www.alokabide.euskadi.eus/hasiera/
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	Eusko Jaurlaritzaren menpeko sozietate publikoa da Alokabide, etxebizitzak gizartean betetzen duen eginkizuna garatzen duena, alokairurako politikaren bidez. Babestutako etxebizitzaren erregimenaren etxebizitza mugiarazi eta kudeatu egiten dugu horren beharra egiaztatzen duten pertsonentzat. Iraunkortasun-irizpideetan oinarrituz jarduten dugu, EAEn inplikatuak dauden beste eragile publiko zein pribatu batzuekin koordinatuz

Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

Solaskidearen izen-abizenak:	Rosa Labrador Horrillo
Helbide elektronikoa:	rosa.labrador@alokabide.eus
Telefonoa:	

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	Testuak euskaraz sortzea Alokabiden
2. Praktika onaren azalpena:	Alokabideko langileei idazten zituzten testuen sortze-hizkuntzari buruzko galdetegi bat bidali genien. Erantzun-kopuru handia jaso genuen. Ondorio nagusia hauxe izan zen: euskaraz sortzeko gaitasun handia zegoela, baina gehienek gaztelaniaz sortzen zutela. Euskararen erabilera areagotzeko beharrezkoa zen berariazko neurriak aurreikustea eta ekintza bat martxan jartzea. Ekimena Alokabide osora zabaldu beharrean, arloka eta progresiboki zabaltzea erabaki genuen. Lehenengo pausoa teknikaria eta arloko arduraduna elkartzea da. Arduradunari ekimena zertan datzan azaldu, eta begi onez ikusten badu, arduradunak arloko langile guztiekin saio bat lotuko du. Langile guztiekin elkartu aurretik, ariketa txiki bat egiteko eskatzen diegu. Arloko lankideekin idatziz zein hizkuntzatan komunikatzen diren betetzeko IDAZGRAMA bidaltzen diegu, eta gero bueltan bidaltzen diegu. Teknikariak, IDAZGRAMA guztiak batu eta izenak ezabatu ondoren, saioko aurkezpenean txertatzen ditu argazkia eta grafikoak. Saioan, teknikariak, galdetegiko eta IDAZGRAMAko ondorio nagusiak aurkeztzen ditu, batez ere gaitasunean fokoa jarritz. Ondoren, norberak bere eguneroko lanean euskaraz sortzeko konpromiso txikiak edo handiak hartzeko eskatzen diegu. Konpromiso horiek betetzeko aholku eta baliabideak eskaintzen dizkiegu eta edozein zalantzaren aurrean, teknikariak laguntzeko prestutasuna adierazten du. Bi edo hiru hilabete igaro ondoren, IDAZGRAMA berriz betetzeko eskatzen diegu, baita animatu eta laguntza eskaini, berriz ere. Orain ekimenaren hurrengo pausoa irudikatzen ari gara, eta batez ere trebakuntzan zentratuko gara.

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)

IDAZGRAMA



